

Bizikidetza Sustatzeko bidean
Gipuzkoan
jorratzen ari diren
Udal Esperientzien Sistematizazioa

**Sistematización
de las Experiencias Municipales**
*de Promoción de la
Convivencia en*
Gipuzkoa

2012 - 2014




Gipuzkoako Foru Aldundia

Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritzak bultzatuta, BAKEOLA, BAKETIK eta LOKARRI elkarlanean aritu dira, zuzendaritzarekin batera, gida hori gauzatzeko. Lana 2014ko azaroan bukatu zen.

A petición de la Dirección General de Derechos Humanos y Memoria Histórica, BAKEOLA, BAKETIK y LOKARRI han trabajado, junto con la Dirección, para realizar esta guía. El trabajo se finalizó en noviembre de 2014.



Bizikidetza Sustatzeko bidean Gipuzkoan jorratzen ari diren Udal Esperientzien Sistematizazioa



Aurkibidea

o. Hitzaurrea

1. Bizikidetza Programak

1.1. Programak sortu diren Testuingurua

2. Hiru Lan Planteamendu Udal Esparruan

2.1. Deskripzioa


BAKEOLA
BAKETIK
LOKARRI

3. Gure Esperientzia

3.1. Konklusioak

3.2. Ikaskuntzak

3.3. Gomendioak



Hitzaurrea

Atsegin handiz aurkezten dut Gipuzkoako hainbat udalerritan aurrera eramandako funtsezko esperientziak laburtzen dituen lan hau.

Lan hau egin ahal izan dugu Bakeola, Baketik eta Lokarri elkarrekin erakutsi duten interesarengatik eta konpromisoarengatik. Gu elkartea horiekin bildu gara, informazioa trukatu dugu eta garrantzitsuenak iruditzen zitzaizkigun gaien inguruan eztabaидatu dugu. Dokumentu hau lan horren guztiaren ondorioa da.


Giza Eskubideen, Oroimen Historikoaren eta Elkarbizitzaren Plana onartu eta, geroago, Elkarbizitza sustatzeko Programa abian jarri ondoren, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza lanean hasi da bere lehentasunezko helburuetako batean: alde batetik, elkarbizitza berri bat eraikitzen laguntzea, pertsona guztien eskubide guztien errespetuan oinarritua, eta, bestetik, giza eskubideetan oinarritutako kultura sustatzea.

Eta helburu hori lortzeko behar diren prozesuak hasteko orduan udalak garrantzitsuak izango dira, herritarrengatik gertuen dauden erakundeak baitira. Beste kasu batzuetan, udalerri barruan, pertsona edo talde jakin batzuk izango dira bultzada hori emango dutenak.

Hasieratik bagenekien eragile horiek ez zutela izango dinamika horiekin hasteko behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikorik eta ezta ezagutzako baliabiderik ere. Hori dela eta, prozesu horiek errazteko funtsezkoak izan direnen beharrezko laguntza eskaini nahi izan diegu. Nire esker ona Bakeolari, Baketikeri eta Lokarriri. Beren inplikazioa eta konpromisoa ezinbestekoak izan dira.


Hiru urte hauetan esperientziak desberdinak izan dira, baina guztiak positiboak. Dokumentu hau prestatzerakoan guk egin dugun lana izan da esperientzia horietatik guztietatik ondorioak, ikasketak eta gomendioak lortzea. Gure nahia da dagoeneko bizitakoaren frituak aprobetxatzea beste udalerri batzuk parte hartzen animatu daitezen, elkarrekin egiten dugun lanarekin Gipuzkoa hobeago bat eraikitzen lagundi dezagun.

Marina Bidasoro Arocena
Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaria



Bizikidetza Programak

1.1.



Programak sortu diren Testuingurua

Bizikidetza sustatzeko programak ziklo aldaketako testuinguru argi baten barnean sortu dira gure Lurraldean, gure komunitateari zabaldu zaizkion aukera berriak aprobetxatu beharreko testuinguruan.

Bortizkeria eta gatazka suntsitzálezko hainbat urteren ondotik, unea iritsi da zauriak sendatzeko eta etorkizunean bortizkeria, giza eskubideen urratzea eta bazterketa-urteak ez errepikatzeko zimenduak jartzeko.

Oinarriak jarri behar dira gatazkaren kudeaketa suntsitzailerik izan ez dadin, eta horretarako egun dauden gatazkak eta etorkizunekoak modu bakezko eta demokratiko batez kudeatzeko forma berriak ikasi behar dira.

Eszenatoki soziopolitiko berri batean gaude, eta hori aukera handia dugu gatazkaren ondorioak lantzeko eta elkarren etsai sentitu diren pertsonen eta indar politikoen arteko dialogo faltako eta elkarbizitza

txarreko egoera kroniko bihur dadin saihesteko. Era berean, adituek egiten dituzten gomendioei jarraiki, horiek baitiote adiskidetze eta bizikidetza prozesuak hasieratik landu behar direla, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiak lan ildo espezifiko bat sartu zuen, lehentasuneko jarduera-ildoaren artean, Giza Eskubideak, Oroimenaren berreskurapena eta Bizikidetza Plana 2012-2015 deituan. Plan hark honela zioen:

“Berradiskidetze prozesuak ez dira nolanahikoak eta adituen aholkua eta gida behar dituzte. Zuzendaritza honen ardura berradiskidetze ekimenak bultzatzea den heinean udalei beharrezkoak dituzten tresnak erraztea da bere eginkizuna baita ere. Hortaz:

- Adituen laguntza programak eta aholkua eskaini udalek elkarbizitzarako planak edo eta ekimenak garatzeko.*
- Berradiskidetze prozesuen definizioak eta osagaiak ezagutzen emango dituzten ikastaroak bultzatu, udaltxeei eta elkarteei zuzenduak.*

Udalen artean adostutako norabide bereko programak bultzatzeak berebiziko garrantzia du efektibotasunaren aldetik; helburu partekatuekin eta era koordinatuan, Lurralde Historikoan zehar lan egiteak emaitza sakonagoak eta sendoagoak erdiesteko aukera bihurtzen dira, eta hauek bilatutako aldaketaren motorrak izango dira etorkizunean.”

Aurrekariak eta helburuak aipatuak direla, Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Bizikidetza sustatzeko programa” 2013an jarri zen abian, euskal bake



prozesuaren testuinguruan bakea eta bizikidetza eraikitzen laguntzearren udalek garatzen dituzten ekimenak bultzatzeko eta sendotzeko helburuz. Programa Gipuzkoako 17 udalerritan ari da garatzen; udalerri horiek gipuzkoar biztanleriaren ia-ia % 70 hartzent dute.

Garrantzitsua da aipatzea programa hau ez dagoela espezifikoki biktimei zuzendua, are gutxiago pentsa daiteke biktimak – kaltegileak adiskidetzeko lan bat denik (beste eredu eta esparru batzuk daude horretarako). Maila lokalean bizikidetza berreraikitzera zuzendutako lan bat da, biztanleriari oro har zuzendua, eta biktimak ere gonbidatuta daude horretara, eta parte hartzen ari dira kasu batzuetan, baina ez da programaren baldintza bat, ezta helburu nagusia ere.

Programa dinamizatzeko eta udalei laguntzeko, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiak hiru erakunderen laguntza izan du (BAKEOLA, BAKETIK eta LOKARRI); horiek laneko planteamendu desberdinak erabiltzen dituzte, helburu bera lortzeko. Aldi berean, erakunde bakoitzak bere metodoa egokitutegi du, herri bakoitzeko edota talde bakoitzaren errealitate zehatz eta eskaera espezifikoetara. Honen helburua da udalek bere beharretarako egokien deritzoten eredua edo erakundeak aukeratu ahal izatea.

Hiru urteko ibilbidearen ondotik, uste dugu dagoeneko behar besteko esperientzia dugula garatzen joan diren prozesuetatik konklusio batzuk ateratzeko.

Orain dokumentu honetan jaso nahi dugu esperientzia hori, hain zuen antzeko prozesuak abian jarri nahi dituzten Gipuzkoako beste udal batzuentzat pizgarria eta lagunza izan dadin.


Hurrengo bi kapituluetan programa bera zein esperientziak erakutsi diguna aurkeztu nahi ditugu.

Bigarren kapituluan deskribatu egingo ditugu programari ekiteko hiru moduak, entitate bakoitzak lan egiteko duen eraren arabera. Ideia bat eman nahi dugu, programa berez zer den eta maila praktikoan nola funtzionatzen duen.

Amaitzeko, atzeneko kapituluan laburtu egin nahi izan ditugu hiru lan urte hauetako irakaskuntzak. Helburua tresnak sortzea da, beste udal batzuk mota honetako esperientziak abiatzera anima daitezten. Hirugarren kapitulua konklusio batzuk ateratzeko da, abian diren esperientzietatik ikasteko, eta izan daitezkeen ahuluneetako batzuei aurre hartzeko. Horregatik hiru bloketan banatu dugu: konklusioak, ikaskuntzak eta gomendioak.

Egitura hau dela, hirugarren kapitulua behintzat osotasun gisa irakurtzea komeni da; izan ere, konklusioetako askok gomendio zehatzak iradokitzen dizkigutenean ikaskuntzak daramatzate berekin. Eta identifikatutako zailtasunetako askok gomendio zehatzak proposatzen garamatzate, akatsak errepikatzea saihesteko.





Hiru Lan Planteamendu Udal Esparruan

2.1.

Deskripzioa

Hiru planteamenduen helburua udal esparruan bizikidetzaren kultura berri bat sustatzea da, bai politika mailan bai herritar mailan. Helburu hori lortzeko, batzuek zabalkundea hartzen dute erdigune, prestakuntzarekin eta herritarren partaidetzarekin batera, eta beste batzuentzat erdigune hori esparru politikoan zein herritarrenean elkarriketakarako espazio edo gune askotarikoak sortzea da.



Bakeola

Bakeolak Bizikidetza eta Giza Eskubideen Udal Planaren barnean, elkarriketa espazioak garatzea

proposatzen du, **helburuak** honakoak direla:

- Euskal kasuan izan diren bortizkeriak autokritikaren bidetik aztertza.
- Enpatiazko begirada bat eraikitza, iraganean gertatutako giza eskubideen urraketen gainean.
- Herriko talde politikoekiko gogoeta, topaketa eta eztabaidea gune edo espazio bat sortzea, bortizkeriek bizikidetzan izan dituzten ondorio eta eraginei buruz.
- Bortizkeriek hautsitako harremanak berreraikitza, norberaren ardura aitortuz eta memoria eraikiz horretarako.

Eta prozesuak oinarri duten **printzipioak** honakoak dira:

- Herrian diren **sentsibilitate politiko guztiak presentzia** (ez hainbeste talde politikoen ordezkaritzarekiko proporzionaltasuna),
- **Herrian izan diren ikuspegi eta bizipen**



guztiak entzuteko eta partekatzeko idea nagusia, eta kontentsuaren bidez arlo honetan bultzatu beharreko ekintzak zein diren bilatzea. Bakeola-ren **prozedura** udalak eskaturik abiatzen da, eta planteamendu orokor bat du, elkarritzetarako espazioak bultzatu aurretik. Ondoren, ohiko prozesua planteatzen da.

Lehenik, **partaidetza bidezko diagnostiko bat garatzea**, bizikidetzaren, bakerako hezkuntzaren eta giza eskubideen egoeraren inguruan; horren helburuak honakoak dira:

- Eguneroko bizikidetzan diren **beharrak eta kezkak ezagutzea** (gatazka komunitarioak, auzokoak, eskola esparrukoak, etab.), eta euskal gatazkaren ondoriozko bortizkerien ondotik bizi den errealtitatea ezagutzea.
- Herritarren bizikidetza hobetzen duten **proposamenak biltzea**.
- **Komunitate osoa implikatzea** planaren diagnostiko eta diseinuan, eta horretarako:
 - Banakako elkarritzetak egiten dira *udaleko talde politikoekin*.
 - Eztabaida taldeak eratzen dira (*hiru saio eragile bakoitzeko*), horien artean direla gizarte eragileak, hezkuntza arloko eragileak eta arduradun teknikoak.

Diagnostikotik abiaturik, **Bizikidetza eta Giza Eskubideen Udal Plana diseinatzea**, eta ildo estrategikoak prestakuntza, partaidetza eta sentsibilizazioaren inguruan ezartzea.

- Urteko ekintza plan bat diseinatzea, adostutako ildo estrategikoak kontuan hartuta.
- **Sentsibilizazioaren ildoaren** barnean, alderdi politikoekiko eta, geroago, herritarrekiko **elkarritzetarako espazioak** bultzatzea, kasu biotan lehen aipatutako helburu eta printzipioei jarraiki.

Agiri honetan aipatzen ari diren elkarritzeta espazioek bi alderdi dauzkate: bata ordezkari politikoak diren pertsonei zuzendua eta, bestea, oro har herritarrei zuzendua.

Alderdi politikoekiko pausoak.

- Banakako elkarritzeta egitea udal talde politiko bakoitzari, duen ikuspegí partikularra ezagutzeko.
- Espazio politiko bat sortzea (talde politikoen bozeramaileekin edo ad hoc sortua), bermatuz betiere horretan izatea udalean ordezkatuta dauden sentsibilitate politiko guztiak.
- Prozesuari ekiteko oinarrizko baldintza eta irizpideen inguruko akordioa.
- Bost bat saioz osatutako prozesu baten hasiera herrian izan diren ikuspegí eta biziengun guztiak entzun eta partekatzeko.¹
- Kontentsutik planteatzea eta bultzatzea arlo honetan, eta herritarrei, eragileei eta talde politikoei zuzendurik, zertu beharreko ekintzak eta proiektuak.

¹ Ordezkari politikoak dauzkaten prozesuek aldaketak izaten dituzte, hainbat aldagairen arabera; horien artean dira honakoak: (kasu batzuetan) urtetan zehar elkarren aurka egon diren pertsonak hurbiltzea; biziengun jakin batzuk partekatzeko eskatzen duen inplikazio personala; oroi menaren politiken gaineko ezagutza maila desberdinak; etab. Horregatik, hasierako eskema aldatu eta prozesu bakoltzari egokitzen zaio. Lehen helburu horien ondotik, baldintzak berritu eta beste lan batzuk jorra daitezke, baita prozesu berriak planteatu ere.



Herritarrekiko pausoak.

- Herritar esparru edo gune bat sortzea, horretan implikatzearen bai eragile sozialak eta hezkuntzakoak bai parte hartzen interesa duten herritarrak.
- Elkarrizketa esparru bat zabaltzea, lau bat saioz, herritarrek hitz egin, hausnartu eta bere bizipenak parteka ditzaten.
- Proposamen eta ekintzak zertzea (maila pertsonalean, sozialean eta politikoan), gizarte sentsibilizatu, prestatu eta giza eskubideen defentsan aktiboa izango den baten aldeko bultzada izan daitezen. Proposatu ohi diren jarduerak honakoak dira: hitzaldiak, zine-forumak, hezkuntza programak, gogoetarako guneak, oroitzeko topaketak, aitortzak, etab.



Baketikek lan proposamen orokor bat egiten du bizikidetzaren arloan, eta 4 esparru biltzen ditu horretan: politikoa, herritarra, hezkuntzarena eta zabalkundearena.

Laneko programaren **helburu nagusia** herri bakoitzean eta oro har euskal gizartean bizikidetza eta adiskidetze kultura bat sustatzen laguntzea da; kultura horrek hainbat ezaugarri eta eginkizun ditu, honakoak:

- **Giza duintasunarekiko** errespetuan eta, ezberdinak garela onarturik, elkar onartzean oinarrituko da;
- **Bakea sendotuko du, modu atzeraezin batez,**

eta giza eskubideak bultzatuko ditu;

- **Iraganaren gaineko oroimen kritikoa** landuko du, biktimei elkartasuna eskaintzearekin batera;
- **Bizikidetzari** eragiten dioten lengoia, jarrerak eta erabakiak **humanizatuko ditu**;
- Prebentziozko hezkuntza ahalbidetuko du, oinarri etiko eta demokratiko partekatuen bidetik.

Programa honek bi **printzipio** ditu gidari:

- Zuhurtzia demokratikoa. Bizikidetzarako berradiskidetzena bideratutako programa batek ezinbestekoa du **onarpenez zabalera** izatea. Ezaugarri honek, **gure errealtitatearen aniztasuna** kontuan harturik, konplexutasun faktore bat eransten du. Horregatik, programak zuhurtzia demokratikoaren lehen irizpide hori du: errealsismoaren zuhurtzia eta gizarte kontsentsuek ahalbidetzen duten progresioa.
- Eta sakontasun etikoa, saihestearren beharrezko zuhurtziak edukirik gabeko azalekotasunera murritz dezan proiektua; **sakontasun etikoa** behar da, proiektuaren **oinarri eta edukian**, sakoneko edukiari eta bizikidetzarako berradiskidetzearen mailako erronka batek eskatzen duen konpromisoari uko ez egiteko.

Bi irizpide horietatik abiatuta, proposamena lehen bi urteetarako programa batean zehazten da. Bi urteko lehen etapa hori partekatzea da, eta horretan hiru helburu lortu behar dira: ideiak adostea, jarrerak prestatzea eta lehen pausoak sustatzea.

Baketik-en **prozedura** udalak eskaturik abiatzen da, akordio politiko batez, eta helburu eta printzipio eskema honen barnean programa tipoa garatzeko pauso edo urratsak honakoak izan litezke:



Alderdi politikoekiko pausoak.

- Programa aurkeztekohitza:
 - Barne hitzaldi bat udaleko kargu politikoei eta teknikariei.
 - Jendaurreko hitzaldi bat, herri mailako prentsurreko batez.
- Lan partekatuko prozesuak abiatzea, tokiko bizikidetza akordioak identifikatzeko.
- Laneko saio bat egitea udaleko kargu politikoekin, prozesua ebaluatu eta jarraitasun planak aurkezteko.
- Bizikidetzaren inguruko kanpaina publiko bat bultzatzea, giza eskubide edo bizikidetzari buruzko aste baten esparruan (2-3 egun).
- Herri mailako Bizikidetza Kontseilu bat sortzeko lana egitea:
 - Proposamena udalbatzari aurkeztea.
 - Lehen pausoak egitea Bizikidetza Kontseilu sortzeko: pertsona zehatzak identifikatu eta gonbidatzea.
 - Bizikidetza Kontseiluera eratzea.
 - Bizikidetza Kontseiluaren aurkezpen publikoa egitea.

Herritarrekiko pausoak.

- Bake, berradiskidetze eta bizikidetza ideiak zabaltzeko ekintzak zertzea.
- Prestakuntza ikastaroak eskaintza:
 - Ikastaro sektorialak, lau ordukoak, bizikidetzazko berradiskidetzeari buruzko informazio eta prestakuntzara zuzenduak.
 - Eskola komunitateari -ikastetxe guztietako irakasleak, ikasleen gurasoak eta hezkuntza ez formaleko eragileak- zuzendutako ikastaroak edo hezkuntza-jarduerak.

- Herritar guzientzat zabaldutako ekitaldiak antolatzea, partaidetzazko metodologia batez, etorkizunerako iradokizunak biltzeo.
- Herri mailako Bizikidetza Kontseilu bat sortzeko lana egitea:
 - Herritarrei zabaldutako hitzaldia, Bizikidetza Kontseiluaren proiektua jendaurrean aurkezteko.
 - Herri osoan zabaltzea ideia hori jasotzen duen dokumentua.
 - Lehen pausoak egitea Bizikidetza Kontseilu sortzeko: pertsona zehatzak identifikatu eta gonbidatzea.
 - Bizikidetza Kontseiluaren kide izan daitezkeenei ikastaro espezifiko bat eskaintza.
 - Bizikidetza Kontseiluak bizikidetzaren arloko laneko proposamen bat prestatuko du, 2 urterako begira.



Lokarrik elkarritzeta inklusiboan eta lankidetzan oinarritutako metodologia proposatzen du, herri mailan bizikidetza sustatzeko.

Helburu orokorra herri mailan bizikidetza berreraikitzeko oinarri sendoak eraikitzen laguntzea da, prozesu lokalak prozesu orokorrago baten parte harturik.

Horretarako **helburu espezifikoago** batzuk ditu, hala nola:

- Ezberdinaren arteko hurbilketa, ezagutza eta aitortza ahalbidetzea.
- Udal mailako eragile politikoen arteko lankidetza ahalbidetzea bizikidetzaren sustapenean, hau helburu komuntzat harturik betiere.



- “Besteak” bizi izandako sufrimendua ezagutzea eta ikustaraztea, bai maila politikoan bai herritar mailan.

- Proposamen positibo eta konstruktibo berriak eraikitza eta bultzatzea, herrian bizikidetza berreraikitza begira.

Lokarri-k, beraz, ez ditu ez bizikidetza planak ez garatu beharreko ekimen zehatzak definitzen. Lokarrik bide bat proposatzen du, egin beharreko bide bat, desberdinaren arteko lankidetzan eta prozesu ideian oinarriturik; eta elkarrizketa eraldatzailea da horretarako tresna eraginkorrena. Prozesuok ondoko **printzipioak** dituzte gidari:

- Giza duintasunarekiko errespetua, topalekutzat.
- Inklusioa eta aniztasuna. Eraldatze prozesu orok gertatuaaren inguruko sentsibilitate, begirada eta bizipen desberdinak jaso behar ditu.
- Lankidetza, inposizio edo bazterketaren aurrean.
- Prozesuarekiko konpromisoa, prozesuaren mikro maila herria dela, eta makro maila, berriz, gure gizartea egiten ari den bizikidetza prozesua.
- Konfiantza eta segurtasuna. Elkarrizketen konfidentalitasuna, elkarrizketa dintso, egiati eta konpromisozkoagoa lortzeko.
- Malgutasuna. Denborak eta jorratu beharreko tematikak elkarrizketa-taldeek berek definituko dituzte.
- Kontsentsua. Pertsona edo talde politiko bakotzaren denborak errespetatzea, baina horrek ez du esan nahi beto eskubiderik dagoenik.
- Eragin soziala. Azken helburua herri mailan bizikidetzan eragitea izango da. Honek guztiak,

halako une batean, gainditu egingo ditu eztabaidea taldeak.

Bizikidetza prozesuak garatzeko egin beharreko pausoak. Lokarri-rekin harremanetan jartzen direnak udalak izan ohi dira, edo dagoeneko eztabaidea prozesu batean murgilduta dauden eta kanpo laguntza behar duten herritar taldeak, eta udal batzuei ere eskaini dizkie bere zerbitzuak.

Pausoak, beraz, desberdinak dira, baina laguntzen ari garen prozesu guztieta egin ohi direnak jasotzen ditugu hemen:

Udaleko talde politikoekiko lana

- Alkatetzarekiko lehen komunikazioa.
- Bilerak udalean ordezkaritza duten indar politikoetako bakoitzarekin, eta batzuetan bilerak herriko beste eragile politiko eta sozial batzuekin, diagnostiko zabalago bat prestatzearren.
- Baterako bilera udalean ordezkaritza duten alderdi guztien ordezkariekin eta diagnostikoa itzultzea.
- Bizikidetza sustatzeko prozesu bat bultzatzeko konpromiso politikoa hartzea.
- Elkarrizketa talde herritar bat eratzea. Horretarako, ordezkaritza politikoa duten pertsonak adostu egiten dituzte partaide diren pertsonen arteko gutxieneko aniztasun bat bermatzeko irizpideak, eta zerrendak adosten dituzte halaber. Talde hauek laguntza politikoa izango dute bere lanean.
- Ordezkaritza politikoa duten pertsonak erabakitzentzako dute elkarrizketa politikorako mahai gisa eratzea, bizikidetzen inguruan kontsentsuak lantzeko, oro har gizartera zuzendutako neurri eta proposamen zehatzekin batera.



Elkarritzeta guneak koordinatzea eta dinamizatzea

Gune horietan gehienez 15 pertsona dira; pertsona horiek aniztasun irizpide desberdinei egokitzentz zaizkie, irizpide horien artean baitira sentsibilitate politikoa, adina, sexua, lan edo partaidetzarako gizarte esparruak, bizipenak... Normalean, taldea aurrez ez badago eratuta bost bilerako konpromisoa eskatzen da. Talde hauen funtzionamendua honakoa da.


- Parte hartzen duten pertsonek adosten dute lan esparrua: helburuak, denborak, joko erregelak eta tematika.
- Lan metodoa elkarritzeta eta espazio komunak bilatzea da, horietan berdintasunez partekatu ahal izatearen gertatuaren eta bizikidetzaren gaineko bizipen eta ikuspegি desberdinak. Elkarritzeta zintzoa eta besteari begirunez entzutea dira lanaren abiapuntua.
- Gune konfidentialak dira, eta horrela ziurtatu


egiten da desberdinaren arteko hurbilketarako beharrezko konfiantza giroa sortzea.

- Kontua da konklusio komunak aurkitzea, eta kasu batzuetaan akordioak, kontentsu bidez beti.
- Taldeek publiko egiteko bokazioa dute, horrela herri mailan bizikidetzan eragin ahal izateko, bai bizi izandako prozesua aditzera emanez bai ekimen zehatzak proposatuz.
- Prozesuek urtebete irauten dute, batez beste.

Aholkularitza

Lokarri-k aholkularitza eskaintzen die bai alkatetzari bai talde politikoei, bizikidetzarekin lotutako arloetan (oroimena, egia, ordaina, biktimak, hezkuntza), arlo hauetako batzueta lan espezifikoagoa egiten duten elkarteekin harremanetan jartzen ditu, eta aholkularitza eskaintzen du, halaber, herritarrei zuzendutako ekitaldi publikoak (mahai inguruak, hitzaldiak, mintegiak) antolatzeko.





Gure Esperientzia

3.1. Konklusioak

Konklusio orokorrak

Martxan dauden 17 esperientzietatik atera ditzakegungo konklusioak zabalak dira, askotarikoak, eta hainbat plano zeharkatzen dituzte batera; horregatik, badira konklusio orokor batzuk eta alderdi zehatzagoei lotuta dauden beste batzuk.

Oro har, esan dezakegu bizikidetza berreraikitzeko programak prozesutzat ulertu behar direla, eta horren fruituak ezin direla erraz neurtu, eta denbora bat behar dutela bai finkatzeko bai orokortzeko.

Bizikidetza-dinamika berriak sortzera zuzenduta dauden prozesuak dira, eta horretarako ikasi egin behar da gertatutik, eta aztertu egin behar dira iraganeko gertakari funtsezkoak, egun ditugun arazoei aurre egiteko eta etorkizuneko irtenbide partekatuak bilatzeko. Nazioarteko "egia, justizia eta ordain" printzipioak dituzte gidari, oroimenaren berreskuratzean eragiten dute bereziki, eta egiamekanismoak sustatzen dituzte.

Etorkizuneranzko lan hori ahalbidetzeko eta gure

errealitatea aztertu ahal izateko, esperientzia horiek kanpo figuraren baten laguntza behar dute, prozesuak dinamizatu ahal izan ditzan, beharrezkoa den kasuetan bitartekari lana egin dezan, eta ideia eta aterabide berriak eskain ditzan blokeo egoerak sortzen direnean.

Ildo honetatik, egin beharrekoari ekiteko hiru modu desberdin (erakunde bakoitzaren modua) egoteari beharrezko eta positibo deritzogu, zeren eta horrek udal bakoitzari aukera ematen baitio erakunde edo metodo batean jartzeko konfiantza, bai udala kasuan kasuko erakundetik hurbilago sentitzen delako izan bai aukeratzen duen prozesu motari eraginkorrago edo bere zertzeladei egokituago deritzolako izan.

Konklusio atera dezakegu, halaber, elkarbizitza berreraikitzeko prozesuak, denborak luzeak badira eta ahalegin handia eskatzen badute ere, atsegigarriak direla bertan parte hartzen duten pertsonentzat; hauek, izan ere, lanean segitzeko gogoa eta interesa adierazi ohi dute, eta prozesuan segitzen duen pertsona kopurua oso altua da.

Gainera, esan dezakegu prozesu horiek, aldi berean, zuhurtzia eta publizitatea behar dituztela. Zuhurtzia, esperientziak erakusten digulako ordezkaritza politikoa duten pertsonek ez dutela "fokoen" eta jendearen edota prentsaren galderen presioaren pean egon behar, ez behintzat lehen unean, galduztako konfiantza berreraiki bitartean -batez ere aurkari edo etsai izan diren figura politikoen



arteko zubiak zabaltzen ari direnean-. Dena den, publizitatea behar da une batean, lan hau egin dela aditzera emateko eta gizarteak, oro har, jakin ahal izan dezan bere ordezkarriak bizikidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako hainbat alderdiren gainean ados jarri direla.

Prozesuaren hasierak beti behar du, egitekoari ekiteko hiru modu desberdinan, konpromiso batzuk sinatzea; eta horiek, alde batzuk badiren arren, gutxieneko osagai batzuk dauzkate: konfidentzialtasuna mantentzea, taldean segitza ziurtatzea, akordioetara iristeko borondatea izatea (akordio oinarrizkoak badira ere) eta bestearenganako konfiantza (gutxieneko bat bada ere) adieraztea. Akordio horiek beharrezko ematen dute, lanari berme batez ekin ahal izateko.

Azkenean, esan behar atzeneko helburua jarrerak aldatzeko eta bizikidetza berreraikitzeko prozesua herrian finkatzea eta berez “funtzionatzea” dela. Esku-hartze planteamenduetako batek bizikidetzarako organo “herritaren” bat eratzea proposatzen du (bai “bizikidetza kontseilu bat” bai beste edozein izen eduki), herri horrek aukera izan dezan “autorregulatzeko” eta bere baitan bilatzeko etorkizunean ager daitezkeen bizikidetza arazoetarako konponbidea. “Autorregulazio” helburu hori lortuz gero, programaren azken helburua lortua izango da.

Alderdi zehatz batzuen gaineko beste konklusio batzuk

Prozesuaren hasierari dagokionez, gonbidapenak ahalik eta zabalena izan behar du, eta ahalegina egin behar da indar politiko guztiak prozesura erakartzeko, minimo batzuen inguruko akordio batez.

Aniztasunari dagokionez, jakin badakigu ezen

prozesuak gizartean eragina izan dezan eta dinamikak aldatzen lagundi dezaketen ahalik eta ordezkaritzarik zabalena izan behar duela, eta aniztasun horrek bizitzako alderdi askorekin du zerikusia, esaterako adinarekin, ideología politikoarekin, generoarekin, bizi penekin eta herri bakoitzean garrantzitsuak izan daitezkeen beste batzuekin; baina ordezkaritza hori ezin da modu kuantitatiboa batean lortu erregela aritmetikoetan, kualitatiboa baita (pertsona batek eginkizun desberdinak har ditzake bere gain, duen ordezkaritza sozialaren arabera), eta alderdi sotilagoak ere kalibratu behar dira, esate baterako komunitateko beste kideengana eragiteko aukera, ideiak transmititzeko gaitasuna edo egungo testuinguruan egokiak ez diren portaerak aldatzekoa, lortutako ezagutzak beste esparru batzuetara helarazteko bitartekoak, edo prozesuan parte hartzen ez duten herriko lider politikoen gaineko eragina.

Prozesu horietan erabili beharreko hizkuntzari dagokionez, badakigu gai garrantzitsua dela eta ez dela irtenbide bakarrekoa. Edonola ere, ezin dugu bizikidetzaren arloko lan bat abiatu inori ezarriz behar beste menderatzen ez duen edo arrotz sentitzen duen hizkuntza batean hitz egitea; hala, kontu hau eztaba idatzi egin behar da, kasu zehatz bakoitzean, eta lantaldeak berak kontsentsua bilatu behar du.

Pertsonak denboran zehar segitza ziurtatzeko beharrari dagokionez, badakigu hasitako prozesuarekiko konpromisoa eskatzen duela, eta konpromiso hori prozesu bakoitzaren hasieran argitu behar da. Eta badakigu, halaber, taldeetako partaideen artean aldaketak daudenean -batzuek uzten dutelako edo beste batzuk sartzen direlako- ahalegina egin behar dela metodologia talde berriaren beharretara egokitzeo.

Elkarrizketa guneen konfidentzialtasunari



dagokionez, espazio edo gune seguru eta konfiantzazko bat eraikitzea izugarri garrantzitsua da, abiapuntutzat pertsona kopuru txiki batera mugatutako elkarrizketa gune murriztuak sortzea duten prozesuen kasuan; pertsona horien profilei esker elkarrizketa guneak eragin handia izango du herritarren artean, halako biderkatze indar batez, gunearen existentzia publiko egiten denean.

Zuhurtziari eta besteengan izan behar den konfiantzari dagokienez, prozesua garatzeko ezinbestekoak direla diogu, eta horiek gabe aurrera egiteko aukerarik ez dagoela ere bai. Zubiak berreraikitzeko ezinbesteko baldintzak dira.

Topaketen erritmoari dagokionez, aldizkakotasun eta iraupen markatuak eduki behar dituzte, eta amaiera aurreikusi bat ere bai, pertsonek bere agendetan aurreikuspenak eta erreserbak egin ahal izan ditzaten. Amaiera bat ere adostu behar da, eta behar izanez gero beste tematika eta helburu batzuekin prozesuaren beste fase bat abiatu ahal izango delako segurtasuna eman.

Jorratuko diren gaiei dagokienez, talde bakoitzak bere behar zehatzen arabera erabakiko du, programaren helburu orokorrak bistatik galtzeke eta herritarrok gehien kezkatzen dituzten gaiak sartzeko ahalegin batez.



3.2. *Ikaskuntzak*

Egin ditugun ikaskuntzak askotarikoak izan dira. Horietako asko dagoeneko idatzi ditugun konklusioetatik ondorioztatzen dira, eta beste batzuk antzeko prozesuak abian jarri nahi dituzten pertsonei baliagarri izango zaizkiela uste dugun alderdi zehatz batzuen gaineko ikaskuntzak dira.

Prozesuaren hasierari dagokionez, alderdi politiko guztiei banakako elkarrizketak eginez hastea komeni da, herriko bizikidetzaren egoera eta jarrera desberdinak ezagutzeko; eta parte hartzeko ezetzak ere onartu behar dira. Horrelako kasuetan, uste dugu zabalik mantendu behar direla komunikazio kanalak, jakinik betiere inork ez duela prozesu honen gainean “beto eskubiderik”: parte ez hartzea aukera bat da, baina ezin da besteen parte hartzea eragotzi.

Prozesuan diren politikaren esparruko partaideen aniztasunaren inguruko orekari dagokionez, ikusi dugu ideia edo jarrera baten defentsa ezin dela pertsona bakar baten gainean egon, zeren eta jarrera edo ideia hori eztabaidagarria baldin bada taldearen presioa altuegia izan baitaiteke, eta “erre” egin baitezake pertsona hori; horrek aberastasuna -eta aniztasuna- galaraziko lioke taldeari. Ikasi dugu, halaber, pertsonek maila indibidualean hartu behar dutela parte, bere taldearen edo ideologia politikoaren jarrerak defendatz noski nahi badute, baina bere jarrera pertsonaletik eta bere arrazonamendu pertsonaletatik egin beharko dute, betiere kargu politiko bat duten pertsonek ordezkaritza berezia dutela ukatzeke.

Prozesu hauetan erabili beharreko hizkuntzari dagokionez, jakin badakigu pertsona bakoitzak aukera izan behar duela erosoen sentitzen den hizkuntza erabiltzeko, sentimendua, bizipenak eta ideiak transmititu ahal izateko (batzuetan oso konplexuak baitira horiek, une jakin batean aditzeria emateko). Ezin da mota honetako prozesu batean inor behartu arrotz zaion hizkuntza bat erabiliz parte hartzen (gaztelaniaz euskaldunen kasuan, euskaraz gaztelaniadunen kasuan), baina beharrezko baloratzen dugu hizkuntza bi horien arteko bizikidetza, eta taldea hizkuntzaren arabera ez bereiztea.

Pertsonek segitza ziurtatu beharrari dagokionez, uste dugu pertsonei segitzeko konpromiso formal bat eskatzea interesgarria dela; horretarako, prozesurako duten garrantzia azaldu behar zaie.

Prozesu hauen eraginkortasunari dagokionez, egiaztu dugu arrakasta gehiago datzala pertsona zehaztetan -horien jarrera eta inplikazioan-ordezkatzen duten aukeran baino.

Beharrezko zuhurtzia eta konfiantzari dagokienez, uste dugu erantzukizun politikoa duten pertsonen gaineko presio mediaticoak oker ulertzeak eragiten dituela errazki, mesfidantza berriak, eta adierazpenen elurrezko bola bat jar dezakeela abian, topaketak arriskuan ipiniz eta “eztabaida politikotik” “ideologia desberdineko pertsonen arteko elkarrizketara” igarotzea eragotziz.

Topaketan erritmoari dagokionez, esan dezakegu bizikidetza berreraikitzeak lasaitasuna ere behar duela: bakoitzak bere erritmoa duen prozesuak dira, eta ezin da zehatz aurreikusi noiz amaituko diren, nahiz amaierarako data bat aurreikusi behar den. Dena den, beti argi eduki behar da ezen azken helburua, prozesu publikoen zein prozesu diskretuen kasuan, herriko bizikidetzan eragin konstruktiboa izatea dela, bai beste mugimendu batzuk bultzatzuz,



bai ekimen zabalagoak sustatuz, bai garatutako ekimenak biderkatuz edo bizikidetzarako dinamika edo egitura egonkorrik sortuz izan.

Gai eztabaidagarriei ekiteko dinamikari dagokionez, esperientziak erakusten digu horiei ekiteko moduaren gaineko gogoeta bizikidetza berreskuratzeko esperientziaren parte dela, eta beharrezko ikaskuntza ere bai, inolaz ere.

Funtzionamendu materialari dagokionez, lehen unetik beretik gutxieneko azpiegitura administratibo

bat ziurtatu behar da (bilerak deitzeko, aretoak kudeatzeko, etab.), eta erreferentzia izango den udaleko pertsona bat ere bai, garrantzitsua baita prozesua egunero kotasunean aurrera eraman behar denean.

Aldaketa instituzionalen aurrean prozesuak behar duen iraunkortasunari dagokionez, garrantzitsua da pentsatzea nola “babestu” prozesua gorabehera politikoetatik, zeren eta konpromiso “pertsonala” izanik talde politikoen programa eta lehentasunetatik kanpo gera baitaiteke.



3.3. *Gomendioak*

Orain arte esandako honetatik guztietatik, eta betiere gure esperientzia zehatzaren arabera, gomendio batzuk utzi nahi ditugu erasota, uste baitugu bide erakusle eta errazle izan daitezkeela antzeko esperientziak abian jarri nahi dituzten herrientzat, hain zuzen gure esperientziatik ikasi eta haratago iritsi ahal izan daitezen.

Honakoak gure gomendioak:

- Prozesuan parte ez hartza erabaki duten alderdi politikoei dagokienez, komunikazio bideak izatea, beste une batean dinamikan sartza ahalbidetzearen.
- Aniztasunari dagokionez, partaideen oreka bilatzea, bermatzearen pertsona bat baino gehiago izango direla jarrera edo ideia bakoitzaren aldeko.
- Pertsona zehatzei dagokienez -horien jarrera, horien inplikazioa-, prozesuari ekarpena egin nahi dion pertsona oro onartza, beste pertsonekiko eta beste pertsonen ideiekiko errespetuaren, zintzotasunaren eta parte hartzeko desiraren parametro jada definituetan oinarrituta.
- Elkarrizketaren eraginari dagokionez, alkabetza duenari eskatza ordezkaritza politikoa duten pertsonen mahaietan parte hartzea -parte hartzten duten beste pertsonen baldintza beretan-, bera delako udal ordezkaritza gorena.
- Prozesuotan erabili beharreko hizkuntzari


dagokionez, hasieratik heltzea gaiari, eta zaitasunak ikustea, irtenbide partekatuak bilatzearen.


- Prozesuarekiko konpromisoari dagokionez, elkarrizketaren oinarrieta sartza prozesua abandonatzen duten pertsonek taldeari pertsonalki aditzeria ematea. Azalpen horrek aukera emango du taldeak gertatzen ari dena uler dezan, eta baita taldeak berak aukerak eskaintzeo ere, kasuan kasuko pertsonak segitza posible izan dadin.
- Diskreziogune edo esparruetan beharrezko konfiantza mantentzeari dagokionez, publiko egitea bai gunearren existentzia bai lortutako emaitzak, taldekiekin adostutako modu batean.
- Elkarrekiko konfiantzari dagokionez, topaketeten esparru formal hutsetik kanpo ere bultzatzea pertsonen arteko topaketak eta harremanak, “pertsonen arteko aurrez aurreko” topaketa informalak sortzearekin batera.
- Prozesuaren iraupenari dagokionez, amaitzeko data bat adostea, berrikusteko aukeraz betiere.
- Helburuak lortzeari dagokionez, eskura dauden bitartekoekin eta epe aurreikusietan lortzeko modukoak diren berrikusi, eta behar izanez gero ziklo berri bat zabaltza, beste helburu batzuekin.
- Taldetik kanpokoak diren eta dinamikari eragiten dioten kontuei dagokienez, une edo leku egokiena bilatza egiten ari den lan orokorrean horiek txertatzeko.
- Funtzionamendu materialari dagokionez, hasieratik bertatik erreferentziako pertsona bat izatea udalean, alderdi praktikoak eta teknikoak bidera ditzan.
- Prozesuaren iraunkortasunari dagokionez,




pentsatzea nola “babestu” gorabehera politikoetatik, hasieratik beretik, kasuan kasuko udalerrian edota lurraldetako alderdiei gutxienekeko konpromiso bat eskatuta.

- Azkenean, prozesuaren eraginari dagokionez, bermatzea prozesu oso horren onurak parte hartze zuzena duten pertsonak gainditu eta gizarte osora heltzea.







Índice

o. Prólogo

1. Los Programas de Convivencia

1.1. Contexto en el que nacen los Programas

2. Tres Planteamientos de Trabajo en el Ámbito Municipal

2.1. Descripción

BAKEOLA

BAKETIK


LOKARRI

3. Nuestra Experiencia

3.1. Conclusiones

3.2. Aprendizajes

3.3. Recomendaciones



Prólogo

Me complace presentar este trabajo, que sintetiza lo sustancial de las experiencias llevadas a cabo en diferentes municipios de Gipuzkoa.

Este trabajo se ha podido realizar gracias al interés y al compromiso mostrado por asociaciones como Bakeola, Baketik y Lokarri. Estas asociaciones y nosotros nos hemos reunido, hemos intercambiado información, hemos debatido sobre las cuestiones que nos parecían más significativas, y el fruto de todo ese trabajo es este documento.

Con la aprobación del Plan de Derechos Humanos, Recuperación de la Memoria y Convivencia, y posteriormente, con la puesta en marcha del Programa de Promoción de la Convivencia, la Dirección de Derechos Humanos y Memoria Histórica comienza a trabajar en lo que será uno de sus objetivos prioritarios: ayudar a la construcción de una nueva convivencia, basada en el respeto a todos los derechos de todas las personas, y promover una cultura basada en los derechos humanos.

Y serán los ayuntamientos, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, los que cobren especial relevancia a la hora de iniciar los procesos necesarios para conseguir dicho fin. En otros casos, dentro de los municipios, personas concretas o grupos ya existentes serán quienes protagonicen dichos impulsos.


Desde un principio, hemos sido conscientes de que estos agentes podían carecer de medios -humanos y económicos- y de conocimiento para comenzar con

dichas dinámicas. Por ello, hemos querido ofrecer la asistencia necesaria de quienes han sido las piezas fundamentales para facilitar estos procesos. Desde aquí, mi agradecimiento a Bakeola, Baketik y Lokarri. Su implicación y su compromiso han sido indispensables.

